

Gai-zerrendako puntua: 7

## Berriro dator Elkarrizketa Handia

Elkarrizketa Handia, egutegi demokratikoko partaidetza-prozesua

### AURKIBIDEA

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Sarrera                           | 2 |
| Elkarrizketa Handia               | 2 |
| Elkarrizketa Handiaren faseak     | 3 |
| Hasierako fasea                   | 4 |
| Tarteko fasea                     | 4 |
| Amaierako fasea                   | 4 |
| Eztabaidagunea                    | 4 |
| Deskribapena                      | 4 |
| 2023 urteko Eztabaidagunea        | 5 |
| Emitza: gomendioak                | 6 |
| Prozesuaren ondoriozko dokumentua | 7 |

## Sarrera

2023ko Batzar Nagusian onartu zen <https://docs.google.com/document/d/1y002n-7Wb5HUgPYeXRjPjNvkrLcmnsZs-7F75Y1D-88/edit?usp=sharing> aurrera, urte hasieran Elkarrizketa Handia eztabaida-prozesua martxan jarri zen. Elkarrizketa Handian Som Energiako 3 estamentuek hartzen dute parte: Kontseilu Errektoreak, Talde Teknikoak eta gizarte-oinarri osoak, Tokiko Taldeekin eta Kontu Hartzailezarekin batera. Prozesu horren helburua beti izan da hainbat gomendio adostea kooperatibaren egungo erronka handiei aurre egitean kontuan hartzeko.

Bi urtean behin antolatuko da Elkarrizketa Handia, Som Energiaren Eskolarekin txandakatua. Ekimen horrek gizarte-oinarriari (hau da kooperatibaren bazkide diren pertsona eta erakunde guztiei) eta Som Energiarekin kontratua duten pertsonen entzun egiten zaiela bermatzen du.

## Elkarrizketa Handia

2023an, Elkarrizketa Handiak kooperatibarako epe-luzerako (2030erako) esparru estrategiko orokor bat ezartzen lagunduko duten hainbat gomendio zehaztea helburu izan du. Era horretan, hurrengo urteetan zehar, beti gure balioen arabera ekiteko hainbat ekintza-lerro ezarri ahalko ditugu era legitimoan.

Energia-trantsizio eraldatzailearen zerbitzura dagoen kooperatiba garen heinean, sektoreko gainontzeko eragileekin ere hitz egin behar dugu. Behar bezala kokatu ahal izateko, erregulartasunez eta elkarrekin zehaztu behar ditugu Som Energiaren xedea eta ekintza-lerroak. Elkarrizketa Handiaren emaitza baliagarria izango da horretarako.

Xedea eta ekintza-lerroa zehaztu ditugu kooperatibako eragileen arteko elkarrizketa sustatzen duen eztabaida-prozesu baten bidez eta horrela gizarte-oinarria prozesuan nahasi dugu. Prozesu horren funtsa kooperatibaren dilemei eta egungo energia-sektoreak planteatzen dituen erronkei buruz hausnartzea izan da.

Datozen urteetan, Elkarrizketa Handiak alderdi estrategiko berriak aztertzen jarraitzeko eta daudenak zehazteko aukera emango digu, baita egoeraren bilakaerarekin etor daitezkeen erronkei aurre egitekoa ere.

Aurten prozesuak galdera hau izango du ardatz:

**Egungo testuinguruko aldaketak kontuan hartuz eta betiere Som Energiaren helburua eta balioak kontuan izanda, zein baliabide erabili beharko lituzke kooperatibak eta zein zerbitzu eskaini beharko lituzke proiektuaren jasangarritasuna bermatzeko?**

Berebiziko garrantzia du momentu honek, izan ere, energia-trantsizioa bizkortzen ari da eta horrek **kooperatibaren bideragarritasuna bermatuko duten erabakiak hartzea** eta **Som Energiaren balio eta printzipioekin** bat etorritz ekitea galdatzen du. Ezingo dira aipatutako erabakiak hartu elementu hauek kontuan izan gabe:

- Egungo elektrizitate-merkatuaren baldintzatzaileak (produkzioa eta merkaturatzea).
- Kooperatibaren barne-egoera (ekonomikoa eta teknikoa).
- Irekitzen diren negozio-ereduen arriskuen eta aukeren arteko oreka.
- Som Energia proiektuaren helburuan eta balioekin bat datozen eta horietan izan dezaketen eragina.

## Elkarrizketa Handiaren faseak

Som Energia 84 000 pertsona eta erakunde bazkidez baino gehiagoz osatutako irabazi asmorik gabeko kontsumo-kooperatiba da. Izan ere, gizarte-oinarria kontuan hartuta Europako kooperatibarik handiena da. Hori dela eta, pertsona orok iritzia eman dezakeela bermatzeko prozesu konplexu baten beharra dago.

Prozesu horrek hiru fase ditu, haietan kooperatibako zenbait estamentuk parte hartzen dute hainbat informazio-mota lantzeko. Prozesua ausaz hautatutako 30 pertsonak osatutako eztabaidagune batean bukatzen da.

| FASEA               | Hasierako fasea                              | Tarteko fasea                                                                                                                                                     | Amaierako fasea                                                            |
|---------------------|----------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|
| HELBURUA            | Elkarrizketa Handiaren lan-esparrua zehaztea | Lan-esparrua ontzat ematea eta osatzea                                                                                                                            | Estrategiak erabaki eta lehenestea                                         |
| ESTAMENTUAK         | Kontseilu Errektorea eta Talde Teknikoa      | Tokiko Taldeak + Kontu Hartzaitza + gizarte-oinarria                                                                                                              | Ausaz hautatutako 30 bazkide                                               |
| 2023-2024 EGU-TEGIA | 2023ko uztaila - iraila                      | 2023ko iraila - urria                                                                                                                                             | 2024ko urtarrila - otsaila                                                 |
| METODOLOGIA         | Lan-topaketa birtualak                       | <p>Aurretiazko lana Tokiko Taldeekin eta Kontu Hartzaitzarekin</p> <p>Tokiko Taldeen aurrez aurreko topaketa</p> <p>Gizarte-oinarri guztiari egindako inkesta</p> | <b>Elkarrizketagunea:</b> hiru topaketa, aurrez aurreko bi eta birtual bat |

## Hasierako fasea

Beste ezer baino lehen, Kontseilu Errektoreak eta Talde Teknikoak Eztabaidagunea kooperatibako gainerako prozesuetara ongi egokitzen den aztertzen dute. Ondoren, Elkarrizketa Handiaren lan-esparrua zehazten da.

Horretarako kooperatiba eta energia-sektorea zein momentutan dauden eta Som Energiak zein erronka dituen azaltzen da, Elkarrizketa Handia amaitutakoan egingo diren materialak zehazten dira eta Eztabaidagunetik zer espero den zehazten da (amaierako fasea).

## Tarteko fasea

Fase honetan bazkideek parte hartzen dute lehen aldiz.

Bestalde, Tokiko Taldeek eta Kontu Hartzaileak (kooperatibako balio eta printzipioekin konpromiso handia duten bazkide aktiboenek osatutakoak) kooperatibako ikuspuntuak eta Som Energiak eskura dituen baliabideak plazaratzen dituzte, betiere gure balioak eta xedek kontuan hartuta. Fase honetan [jasotako informazioari](#) esker, aurreko fasean ezarritako lan-esparrua ontzat eman daiteke eta Eztabaidagunterantz aurrera egin.

Bestalde, [gizarte-oinarri osoaren iritzia jasotzen da](#) Som Energiaren dilema nagusien inguruan. Bazkide guztiek haien iritzia emateko aukera izatea bermatzean, kooperatibaren ekintza posibleen mapa bat garatzea ahalbideratzen da. Mapa hori egiteko ez gara ikuspegi teknikoan edo ekonomikoan oinarritzen, bazkideen borondatean baizik.

## Amaierako fasea

Elkarrizketa Handia Eztabaidagunea izeneko bazkide guztien arteko elkarrizketa batean bukatzen da. Herri-batzarren metodologia erabiliz, zozketa batean Som Energiako 30 bazkide hautatzen dira. Pertsona horiek kooperatibaren dibertsitatea islatu behar dute sexuari, lurraldeari eta energia-kontsumo profilei dagokienez.

Hautatutako bazkideek egungo egoerari buruz hitz egin beharko dute eta mahai gainean dauden proposamenak balioetsi, edo proposamen berriak egin. Azken finean, Eztabaidaguneak epe ertainera eta luzera kooperatibako estrategiak eta proiektuak lehenestea errazten du.

## Eztabaidagunea

### Deskribapena

Eztabaidagunea Elkarriketa Handiaren azken fasea da, kooperatiba ordezkatzeko duen talde baten arteko elkarriketa bat. Kooperatibako organoek bertan parte hartzen duten bazkideei egungo arazoak partekatu eta proposamenak egin ahal izateko beharrezko informazio guztia ematen diete. Etorkizun hurbilari nola heldu pentsatzeko datza.

Gizarte-oinarria edozein kooperatibaren giltzarri da, horregatik bukatzen da Elkarriketa Handia bazkideen arteko elkarriketa den Eztabaidagunean. Som Energia osatzen duten gainerako pertsonak emandako informazioarekin eta hausnarketekin, bazkideek erabakiak hartzea erraztuko duten gomendioak birformula ditzakete, baita denon artean adostutako bidea jarraitzen duten estrategiak zehaztu ere.

[2023ko prozesu hasieran emandako informazio-txostena.](#)

(Eztabaidagunean parte hartzen duten bazkide guztiei egun batzuk lehenago ematen zaie)

### 2023 urteko Eztabaidagunea

Lehen Eztabaidagune hau asteburuetan egindako hiru topaketatan (aurrez aurrekoa, birtuala eta aurrez aurrekoa hurrenez hurren) gauzatu da. Topaketa horietan zozketaren bidez hautatutako 30 bazkideak lehenago aipatutako galderaren inguruan aritu dira.

1. Lehen saioa: aurrez aurrekoa, urtarrilaren 27a eta 28a.
2. Bigarren saioa: birtuala, otsailaren 3a eta 4a.
3. Hirugarren saioa: aurrez aurrekoa, otsailaren 17a eta 18a.

|                     | Saioetako partaideak |           |           |
|---------------------|----------------------|-----------|-----------|
|                     | 1. saioa             | 2. saioa  | 3. saioa  |
| <b>Gizonezkoak</b>  | 20                   | 19        | 10        |
| <b>Emakumezkoak</b> | 10                   | 8         | 19        |
| <b>Guztira</b>      | <b>30</b>            | <b>27</b> | <b>29</b> |

\*Sexuko dagoen ordezkariak kooperatibak berak duen aniztasuna islatzen du

Elkarriketagunea hiru helburu lortzeko bideratu da, saio bakoitzean helburu bat.

1. **Lehen saioa:** Bazkideek bertan zergatik dauden ulertzea.
2. **Bigarren saioa:** Bazkideak arazoen jabe egitea eta arazo horiek haien iritziazen arabera analizatzea.
3. **Hirugarren saioa:** Bazkideek kooperatibarako ekintza-lerroak proposatzea eta lehenestea.

Dinamika guztiek talde-lanerako uneak, komunean jartzeko tokiak eta osoko eztabaidak izan dituzte.

Prozesuan zehar 6 partaideko 5 talderekin lan egin da, uneoro dinamizatzailer baten laguntzaz. 30 bazkideko ordezkariatza bezala, taldeak bazkide-profil bakoitzak talde guztietan ordezkariatza izateko moduan eraiki dira.

Irizpide berdina jarraituz, saio bakoitzean talde bakoitzeko kideak aldatu dira partaileen arteko hartu-eman handiagora bermatzeko.

Dinamika guztiak gomendioak era kolektiboan eraikiz joateko beharrezko produktuak sortze aldera zeuden orientatuta. Kasu gehienetan, dinamika baten ondorioa hurrengoaren abiapuntua zen. Produktu batzuk alde batera utzi dira dagokienean haletara itzultzeko.

## **Emailza: gomendioak**

Eztabaidagunearen azken saioak gomendioak idazteko balio izan zuen.

Partaideak berriz ere eztabaida-prozesuan sartu ahal izateko, dinamika bat errepikatu da tentsioen tratamenduari buruzko aurretiazko saio birtualaren. Horrela etorkizun posibleetan egon daitezkeen tentsioak identifikatu dira eta horiek gaintitzeko balio dezaketen irtenbideak eta zubiak zehaztu dira.

Bukatzeko, partaideek emandako garrantziaren arabera lehenetsitako bederatzi gomendio berri onartu dira.

– [Elkarrizketa Handitik eratorritako gomendioak](#)

## Prozesuaren ondoriozko dokumentua

| Izenburua                                                                                                    | Deskribapena                                                                                                                                                                                                                                             |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <a href="#"><u>Pertsona eta erakunde bazkide eta erabiltzaileei egindako inkestaren analisi-txostena</u></a> | Dokumentu honek kooperatibako pertsona eta erakunde bazkide eta erabiltzaile guztiei bidalitako inkestaren erantzunak jasotzen eta aztertzen ditu. Inkesta 2023an egin zen eta 6 728 pertsonak erantzun zioten.                                          |
| <a href="#"><u>Elkarrizketa Handiaren prozesuaren amaierako txostena</u></a>                                 | Antígónak egin du txostenaren diseinua, kooperatibari Elkarrizketa handiaren metodologiaren diseinuan lagundu dion eta eztabaidarako guneak eskaini dituen elkarteak. Dokumentu honetan prozesua zehazten da, bidean sortu den dokumentazio guztiarekin. |
| <a href="#"><u>Eztabaidagunearen balioespen-inkestaren txostena</u></a>                                      | Bazkide partaideei Eztabaidagunean emandako erantzunak jasotzen dituen txostena.                                                                                                                                                                         |
| <a href="#"><u>Elkarrizketa Handitik eratorritako gomendioak</u></a>                                         | Lehenetsitako gomendioak biltzen dituen Eztabaidaguneko partaideek egindako dokumentua.                                                                                                                                                                  |
| <b>Eztabadaguneko esperientzien bideoa</b>                                                                   | Eztabaidagunean zehar grabatutako bideoa da. Bertan kooperatibako organoek Elkarrizketa Handiaren funtsa eta Eztabaidagunean partaidetza nola lantzen den azaltzen dute.                                                                                 |

Prozesuari buruzko informazioa eta sortutako dokumentazioa kooperatibaren partaidetza-plataforman ([Participa plataforman](#)) aurki daiteke.